FEUILLE DE CHANTS

Paroisse Saint-Pierre d’Amikuze · Arbouet

CHANT D’ENTRÉE — AGUR ELIZA

Refrain
Agur Eliza, Jaunaren Egoitza,
haren Gorputza, haren Erresuma !
Agur, Eliza, munduko bihotza,
guzien Ama !

1. Gurutzeraino baitzaitu maitatu,
Jaunak munduan Ama egin zaitu,
dena grazia, dena izpiritu : agur Eliza !

2. Zuk Jauna duzu guzien lokarri,
fededunak bat dauzkan izkin-harri ;
denen aterbe, denen Mundu Berri : agur Eliza !

3. Jainkoa gizon egin da lur huntan :
zu ere zare bizi gizonetan,
saindu-arazle menderen mendetan : agur Eliza !

4. Zainetan duzu Jaunaren Bizia,
eta mintzoan Jaunaren Egia.
argi zazu ba mundu hau guzia : agur Eliza !

CHANT DE LOUANGE — DEZAGUN KANTA GOGOTIK

Refrain
Bai, bihotzaren erditik,
dezagun kanta gogotik.

Variante avec répétitions (ter)
Bai, bihotzaren (ter) erditik,
dezagun kanta (ter) gogotik.

1. Dezagun kanta gogotik : gaiten guziak bozkaria.
Gure salbatzea gatik, Jesus, eman duzu bizia.

2. Dezagun kanta gogotik : zure odol preziatua
ixuri duzu gu-gatik : zaite, o Jesus, laudatua.

3. Dezagun kanta gogotik : beti zaitugu laudatuko,
gauza guzien gainetik, Jesus, zaitugu maitatuko.

FEUILLE DE CHANTS

Paroisse Saint-Pierre d’Amikuze · Arbouet

CHANT DE COMMUNION — OGI ZERUTIK ETORRIAK

Iratzeder / Herrikoa

Refrain
Ogi zerutik etorriak,
egin gaitzala bat guziak. (bis)

1. Jainko Semea gutan baita,
Jainkoa dugu denek Aita.
Gerla bideak utzi eta,
dugun bihotzez elgar maita. (bis)

2. Jesusen bihotz hain zabala,
gure barnean sar dadila.
Huna Jesusek derraukula :
« Oi elgar maita nik bezala. » (bis)

3. Mahain sainduko janariak,
noiz nahi gare gu haziak.
Jainkoa bera den Ogiak,
egiten gaitu bat guziak. (bis)

4. Bihotz guziaz dugun barka
eta etsaiak bai… besarka.
Amodioan gaiten finka
eta zerurat hel osteka. (bis)

CHANT FINAL — AGUR AINGERUEN

1. Agur Aingeruen eta zeru lurren Erregina puxanta.
Ederra zare, Maria, histen duzu iguzkia, zein zaren distiranta !

2. Graziaren Ama, Ama guziz ona, urrikalmendutsua.
Zure miserikordia zein den espantagarria, oi zer ihes lekua !

3. Beti on, amultsu, kausitzen zare zu bekatorearentzat.
Ez da hain gozo eztia nola baitzare, Maria, ene gostuarentzat.

4. Penatuak diren haur dohakabeen kontsolazionea !
Zu zare zu, oi Maria, bekatoreen bizia, loriako atea.

5. Zutaz maitatuak eta lagunduak ez ohi dire galtzen ;
zutan ene esperantza deskantsaturik bihotza, betikotz dut emaiten.